

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak hiru taldetan banatu ditugu: ikasleak, turistak eta erretiratuak



1. Gure negozioa hizkuntzak ikasi nahi dituen edozein pertsonarentzat zuzenduta dago, bereziki gazteentzat, gaur egungo ikasketa gehienak hainbat hizkuntza menperatzea eskatzen baitute. Gazteak erakartzeko, gure lokalaren kokapenez baliatu gara, bi ikastetxe baitaude auzo berean: Jesuitak ikastola eta Colegio nuestra señora del Carmen.



Inguruko ikastetxeekin harremanetan jarri gara eta hizkuntz ezberdinak irakasten dituzten irakasleak gure negozioaren berri ematea proposatu diegu, horretaz aparte, eskolaz kanpoko ekintza bezala proposatu dute ikastolan bertan, hizkuntz berriak modu naturalean erabiltzeko aukera paregabea dela pentsatzen dutelako. Neurri hauekin jende gaztea gure negozioa ezagutzea bermatuko dugu.

2. Ikasleek ez dira gure bezero bakarrak eta gure negozioa hizkuntz ezberdinak hitz egiten dituen jendea erakartzeko xedea duenez, museotan eta monumentu turistikoetan propaganda lan anitza egin dugu, txartelak, flyerrak eta horrelakoak banatuz turistak eta kanpotarrak erakartzeko.



3. Azkenik erretiratuak dauden pertsonak ere bezero bezala ditugu, denbora libre asko baitute eta ikasteko gogoak baitituzte, batzuetan gazteak zirenean ez baitzuten aukera.



HURBILDU ETA FROGATU
TXAPELA BURUAN ETA PARLA MUNDUAN

PARLANTXIN
EST. 2020
TABERNA

PARLA & DASTA!

Parlantxin Tabernak bi helburu nagusi ditu: Hizkuntzak modu erraztean ikastea eta herrialde desberinetako janari eta edari tipikoenak dastatu.

946 57 31 75 | Calle Simon Bolivar, 17 BILBAO | www.parlantxintaberna.com